

Jokoarekin entretenitu eta dibertitu egiten gara, harremanak egiten ikasten dugu, gure sormena garatzen dugu eta sentitzen duguna azaltzen ikasten dugu. Zenbaitetan, jokoak emozio gehiago izan dezan, hainbat elementu sartzen ditugu; esate baterako, ***apustua, patua eta arriskua*** . Halako joko-motak ***Aus azko joko*** izendatzen dira.

Ausazko jokoak eta gazteak

Gaur egun oso zabala da jokorako eskaintza. Gustu guztietarako jokoak daude. Makina txanponjaleak, kirol-apustuak, loteriak, kasinoak eta pokerra dira gazteei erakargarrien zaizkien jokoak.

Honatx jokoarekiko erakargarritasun hori izateko zenbait arrazoi:

- **Dirua errez irabaztea.**
- **Helduago sentitzea.** Ausazko jokoak helduei zuzendutako jokoak dira. Legeak ez du baimentzen adinez txikikoak halako jokoetan ibil daitezen.
- **Jakin-mina.** Orokorki, interesa eta jakin-mina izaten dugu ezezaguna zaigunaren aurrean.
- **Emozio berriak izateko eta ezohiko zerbait egiteko asmoa.** Zenbait mutikori ez zaie erakargarri suertatzen alkoholaren edo bestelako substantzien kontsumoa. Horregatik, drogaren munduarekin zerikusirik ez duten bestelako gauza batzuk probatu nahi dituzte.

- **Kontsumismoa.** Oso kontsumista handiak diren neska-mutikoak daude eta horretarako dirua behar da. Egoera horren ondorioz, diru asko erabiltzen dute eta nahi duten hartan xahutzen dute diru hori: jokoa, arropa, musika, irteerak…

PDF deskarga